

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

110

192/2018 DEKRETUA, abenduaren 26koa, zeinaren bidez 6.430 euroko kredituak sartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2018ko aurrekontuan, trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan (Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineak) Estatutik eskumen eta/edo zerbitzu berriak jaso direla-eta.

Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bitartez, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen da, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatuko zaien aurrekontu-erregimena arautzen da. Bada, dekretu horren 75. artikuluan ezartzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoak Estatutik zerbitzu eta eskumen berriak jasoz gero, zirkunstantzia horren ondoriozko obligazioei aurre egiteko, Aurrekontu Orokorretan beharrezko kredituak sartuko dira, bai eta likidatzea aurreikusten diren eskubide ekonomikoak ere. Guztiarekin ere, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Transferentzien Bitariko Batzordearen Akordioa azkenekoz argitaratu zenetik harako hogeitun egun baliodun igaro baino lehen, Jaurkiturak onartu egin beharko du eskumen eta/edo zerbitzu berriari dagokion aurrekontua, ekitaldia amaitu arteko aldiari dagokiona onartu ere.

2018ko abenduaren 14an, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Euskal Autonomia Erkidegoari trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan eginkizunak eta zerbitzuak transferitzeko abenduaren 7ko 1434/2018 Errege Dekretua eman zen argitara; eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2018ko abenduaren 14an, ordea, aipatutako arloei dagokienez, argitara eman zen abenduaren 11ko 178/2018 Dekretua, hau da, Transferentzien Bitariko Batzordearen 2018ko azaroaren 26ko Akordioa onartzen duena.

Horren ondorioz, Ogasun eta Ekonomiako sailburuak eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko abenduaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2018ko aurrekontuan kredituak sartzea.

1.– 6.430 euroko gastu-egoera onartzen da, eta honako obligazio hauei aurre egiteko beharrezko zenbatekoaz eratzen da: trenbideen eta trenbideko garraioaren arloetan (Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineak) Estatutik jasotako eskumen eta/edo zerbitzuen ondoriozko obligazioak, hain justu ere.

2.– Jasotako eskumen berriari dagokion sarrera-egoera 6.430 eurokoa da.

3.– Sarrera- eta gastu-egoerak, aurreko paragrafoetan aipatuak, aldi honi dagozkio: 2018ko abenduaren 15etik 2018ko abenduaren 31ra artekoa; eta honela banatzen dira:

Gastuak: 5131 programa: Trenbideko Garraioaren Azpiegitura eta Kudeaketa.

		Euroak
713.01	Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldo trenbide-lineak.	6.430,00
	GUZTIRA	6.430,00

Diru-sarrerak: 9111 programa: Foru Aldundien Ekarpinak.

		Euroak
421.01	Foru aldundien eragiketa arruntetarako transferentzia eta diru-laguntzak.	1.057,00
421.02		2.134,00
421.03		3.239,00
	GUZTIRA	6.430,00

2. artikulua.– Kredituak sartzetik datozen ondorioak.

1.– Ogasun eta Ekonomia Sailak integratu egingo du aurreko artikuluan aipatutako gastu- eta sarrera-egoera Euskal Autonomia Erkidegoaren 2018ko aurrekontuan, betiere bidezko ondorio juridikoetarako, eta, bereziki, kontabilitatea, exekuzioa eta osteko likidazioa egoki gauza daitezen.

2.– Martxoaren 23ko 2/2007 Legearen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuak finantzatzeko foru aldundiek egin beharreko ekarpinak zehaztu eta baliabideak egoki banatzeko metodologia onartu zen 2007-2011 aldirako; bada, indarrean den metodologia horretako 9. artikuluko 1. apartatuan xedatzen denarekin bat etorriaz, Kupoaren metodologiaren ondoriozko dedukzio osagarria, zehazki metodologia horretako 2. artikuluan zehaztua, burutuko da, hain justu ere 2018ko ekitaldian eta 6.430 euroko zenbatekoarekin.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako metodologiaren 9. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoarekin bat etorriaz, eta transferentzia berriak finantzatzeko, foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari ekarpen espezifiko eta osagarri bat egingo diote 2018ko ekitaldian, 6.430 euroko zenbatekoa egiten duena.

4.– Aurreko 2. eta 3. zenbakietan zehaztutako ondorioak data honetatik aurrera aplikatuko dira: aipagai dugun arloko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkion egunetik aurrera, hain justu ere.

3. artikulua.– Kupoan minorazio bat aldatzearen ondorioak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoaren 2017-2021 bosturtekorako kupoa zehazteko metodologiaren –abenduaren 28ko 11/2017 Legez onartutakoaren– 11. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoarekin bat etorriaz, 2018ko ekitaldiko kupo likidoaren minorazioaren ondoriozko emaitza hauze izango da: dekretu honetako aurreko artikuluko 2. zenbakian adierazitako dedukzio osagarrian behin betiko zenbatzen dena.

2.– Dekretu honetan aurreko artikuluko 3. zenbakian aipatutako ekarpen espezifiko eta osagarrian ere zenbatuko da emaitza hori.

3.– Ogasun eta Ekonomia Sailari baimena ematen zaio, beharrezkoa bada, artikulua honetan xedatutakoaren ondorioz bidezkoak diren aldaketak egiteko.

4. artikulua.– Legebiltzarrari jakinaraztea.

Dekretu honen babespean egindako kreditu-kontsignazioari dagokionez, Jaurlearitzaren izenean, Ogasun eta Ekonomia Sailak jakitun jarriko du Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordea.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra dekretu honek, baina 2018ko abenduaren 15etik aurrerako ondorioak izango ditu. Izan ere, transferentziek egun horretatik aurrera izan dute eragina.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko abenduaren 26an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ogasun eta Ekonomiako sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.